Fermin Aio (Algorta, Bizkaia. 1973) directed and produced the ETB documentary programme *Rutas de solidaridad* (1998-2009) and was a photo correspondent with the same network in several conflicts in Asia and Africa. He also directed and produced the documentary series *Las huellas perdidas* (2016), homage to the victims of the Franco era and to those never recognised. He has directed the documentaries *Reconciliación* (2014) and *El reencuentro* (2014), on the meeting between a victim and two former members of ETA, *Ongietorri* (2017), about refugees and immigrants in the Basque Country, and *Margarita Alexandre, una cineasta en la revolución* (2017), premiered at Zinebi and selected for the Malaga and Havana Festivals and the Festival Internacional Cine de América, where he landed a special mention.

Sinopsia / Sinopsis / Synopsis



2018ko abenduaren 6an, Kepa Junkera eszenatokitik atera zen Ganten (Belgika). Desagertu egin zen, eskusoinua jotzeari utzi zion. Albisteek iktus bat aipatzen zuten, larrialdi-ospitaleratze bat, sendatze-prozesu bat, baina horren ondoren, ezer ez. Trikitixa eta euskal musika herrikoia maila gorenera igo zituen euskal artista, 32 urteko ibilbidean ia disko bat argitaratu zuena urtean, munduko euskal musikari ospetsuen bihurtu eta mundu osoko artistak euskaraz abestera animatu zituen autodidakta, arrastorik utzi gabe desagertu zen. Gero, bi urteko lan gogorra etorri zen, errehabilitazio latza, gorputzaren mugikortasuna berreskuratzeko, hitz egiten ikasteko, eskuak mugitzeko, burua biratzeko, jateko, bizitzen jarraitzeko. Izan ere, Kepak bizitzen eta sortzen jarraitzen du, arte, musika, poesia, pintura eta argazkigintzarekin hunkitzen. Emozio horren kontakizuna da dokumental hau.

Kepa Junkera salió de escena el 6 de diciembre de 2018 en Gante, Bélgica. Desapareció, su acordeón dejó de sonar. Las noticias hablaban de un ictus, un ingreso hospitalario de urgencias, proceso de recuperación y después nada. El artista vasco que elevó la trikitixa y la música popular vasca al máximo nivel, que publicó casi un disco al año en sus 32 años de carrera, el autodidacta que se convirtió en el músico vasco más internacional y que invitó a cantar en euskera a artistas de todo el mundo desapareció sin dejar rastro. Después llegaron dos años de duro trabajo, de sesiones de rehabilitación para recuperar la movilidad de su cuerpo, para aprender a hablar, mover las manos, girar la cabeza, comer, seguir viviendo. Porque Kepa sigue viviendo, sigue creando, emocionándose con el arte, con la música, con la poesía, con la pintura, con la fotografía. Este documental es el relato de esa emoción.

Kepa Junkera left the stage on 6 December 2018 in Ghent, Belgium. He disappeared, his accordion fell silent. The news mentioned a stroke, urgent admission to hospital, a recovery process, and then nothing. The Basque artist who took the *trikitixa* and popular Basque music to the highest level, who pretty much brought out an album a year for the 32 years of his career, the self-taught man who became the most international Basque musician and who invited artists all over the world to sing in Basque disappeared without trace. Later came two years of hard work, of physiotherapy sessions to recover his physical mobility, learn to talk, move his hands, turn his head, eat, stay alive. Because Kepa continues to live, continues to create, to enjoy the thrill of art, of music, of poetry, of painting, of photography. This documentary is the story of that emotion.

Irizar

Euskal zinemaren Irizar sarirako hautagaia
Opta al Premio Irizar al Cine Vasco
Candidate for the Irizar Basque Film Award

Fitxa teknikoa / Ficha técnica / Full credits

Ekoizpena / Producción / Production
José Ramón Plaza Zaldegui
Joserra Producciones S.L. (Spain)
+34 679 477 771
eider@filmak.tv
www.fmk.eus

Banaketa / Distribución / Distribution
Barton Films (Spain)
+34 94 424 05 59
unai.barton@bartonfilms.com
www.bartonfilms.com

ZUZENDARITZA / DIRECCIÓN / DIRECTION
FERMIN AIO

Gidoia / Guion / Screenplay
Fermin Aio

Argazkia / Fotografía / Photography
Oier Plaza, Kerman Goikouria

Musika / Música / Music
Kepa Junkera

Muntaketa / Montaje / Edition
Fermin Aio, Oskar Epelde

Soinua / Sonido / Sound
Daniel Asua

Formatua / Formato / Format
DCP FOLLOWING DCI

Iraupena / Duración / Running time
104 min.

SSIFF

Donostia Zinemaldia
Festival de San Sebastián
International Film Festival

Discovering Canary Islands Gala

Gala Discovering Canary Islands

Discovering Canary Islands Gala

Discovering Canary Islands Gala

Kanaria uharteetan kokaturiko *Discovering Canary Islands* abenturazko *realitya*, Rakuten TV taldearen jatorrizko edukia, Turismo de Canarias entitatearen laguntzarekin eta Initiative eta Atlantia ekoiztetxeen lankidetzarekin egina, Donostia Nazioarteko Zinemaldian aurkeztuko da irailaren 19an, Victoria Eugenia Antzokian egingo den gala berezi batean.

Programa Pilar Rubiok aurkeztuko du, eta Zinemaldiaren 70. edizioaren esparruan erakutsiko da, La Palma uharteko sumendi-erupzioaren lehen urteurrenean.

Discovering Canary Islands saioak Kanaria uharteetako mitorik harrigarri eta sinesgaitzenak aztertuko ditu; hala, Europako 8 herrialdetako 8 lehiakideek tokiko kultura eta tradizioei buruz gehiago jakingo dute lehiaketaren medioz. Atlantia Media eta Initiative/Mediabrands Content Studio ekoiztetxeek –Turismo de Canarias entitatearen *partner* estrategikoek– asmatu eta koproduzitutako deskubrimendu-bidaia honen 6 atalak proba eta enigmaz beteta egongo dira, eta eskualdeko xarmak erakutsiko dizkiete ikus-entzuleei. *Discovering Canary Islands* urriaren 13tik aurrera ikusi ahalko da, Rakuten TV plataformaren bidez, etxeetan.

Programa horrekin, uharteen erakargarritasuna eta lurralde honetako alderdi ezezagunenak ezagutarazteko formula berri-berri baten aldeko apustua egin du Turismo de Canarias entitateak. Lanzarote, La Graciosa, Fuerteventura, Kanaria Handia, Tenerife, La Palma, Hierro eta Gomera ez dira uhartedi kanariarra osatzen duten irla bakarrak. Errealitatearen eta folklorearen artean, historiaren eta fikzioaren artean, bederatzigarren uharte bat dago, San Borondón izenekoa, Isla Ballena ere deitua (agertu eta desagertu egiten baita, Ozeano Atlantikoko uretan azaleratuz eta murgilduz). Kanarietako kultura eta imajinariotik ateratako lurraldea, Erdi Aroan hainbat nabigatzailek uhartea Kanarietako mendebaldeko muturrean ikusi zutela ziurtatu zutenetik. Hura aurkitzeko, lehiakideek abentura bati ekingo diote beharrezko arrasto guztien bila.

Gala Discovering Canary Islands

El *reality* de aventuras en las Islas Canarias *Discovering Canary Islands*, contenido original de Rakuten TV, realizado con el apoyo de Turismo de Canarias y con la colaboración de Initiative y Atlantia, se presentará en el Festival Internacional de Cine de San Sebastián el próximo 19 de septiembre en una gala especial en el Teatro Victoria Eugenia.

Este programa, que contará con Pilar Rubio como presentadora, se englobará dentro de la 70º edición de este evento, coincidiendo con el primer aniversario de la erupción volcánica en la isla de La Palma.

Discovering Canary Islands explorará los mitos más increíbles y sorprendentes de las Islas Canarias mientras sus 8 concursantes, originarios de 8 diferentes países europeos, conocerán más sobre la cultura y las tradiciones locales. Un viaje de descubrimiento, ideado y coproducido por Atlantia Media e Initiative/Mediabrands Content Studio –partners estratégicos de Turismo de Canarias– que, durante 6 episodios, estará lleno de pruebas y enigmas que mostrarán los encantos de la región a sus espectadores. *Discovering Canary Islands* se podrá ver en los hogares a partir del 13 de octubre en exclusiva en Rakuten TV.

Con este programa Turismo de Canarias apuesta por una fórmula inédita para dar a conocer el atractivo de sus islas y los aspectos menos conocidos de este territorio. Lanzarote, La Graciosa, Fuerteventura, Gran Canaria, Tenerife, La Palma, el Hierro y la Gomera no son las únicas ínsulas de este archipiélago. Entre la realidad y el folklore, la historia y la ficción, existe una novena isla llamada San Borondón, también conocida como Isla Ballena por el modo en que aparece y desaparece, emergiendo y sumergiéndose en las aguas del océano Atlántico. Un territorio que parte de la cultura y el imaginario canario desde la Edad Media, cuando varios navegantes aseguraron avistar la isla en el extremo occidental de las Canarias. Para encontrarla, los concursantes emprenderán una aventura en busca de todas las pistas necesarias.

Discovering Canary Islands Gala

The *Discovering Canary Islands* reality show originally created by Rakuten TV, produced with the backing of Turismo de Canarias and with the collaboration of Initiative and Atlantia, will screen at the San Sebastian International Film Festival on September 19 at a special gala in the Victoria Eugenia Theatre.

The programme, hosted by Pilar Rubio, is part of the event's 70th edition, coinciding with the first anniversary of the volcanic eruption on the island of La Palma.

Discovering Canary Islands will explore the most incredible and surprising myths of the Canary Islands while its 8 competitors, from 8 different European countries, will learn more about the local culture and traditions. A voyage of discovery, devised and co-produced by Atlantia Media and Initiative/ Mediabrands Content Studio (strategic partners of Turismo de Canarias) which, over 6 episodes, will be packed with trials and enigmas revealing the charms of the region to its spectators. *Discovering Canary Islands* will broadcast in homes from October 13, exclusively on Rakuten TV.

With this programme, Turismo de Canarias uses a hitherto unseen formula to reveal the attractions of its islands and the lesser-known aspects of the territory. Lanzarote, La Graciosa, Fuerteventura, Gran Canaria, Tenerife, La Palma, El Hierro and La Gomera are not the only isles in the archipelago. Between reality and folklore, history and fiction, there is a ninth island going by the name of San Borondón, also known as Whale Island for the way it appears and disappears, rising and falling beneath the waters of the Atlantic Ocean. A territory with a Canarian culture and imagery dating back to the Middle Ages, when numerous sailors claimed to have caught sight of the island to the far west of the Canaries. To get there, the competitors will embark on an adventure to find all of the necessary clues.

Discovering Canary Islands - San Borondón

Cristina Jiménez (Espainia / España / Spain)

ESPAINIA / ESPAÑA / SPAIN

Zuzendaritza / Dirección / Director



Cristina Jiménezek (Cuenca, Espainia) hogei urte baino gehiago eman ditu ikus-entzunezkoen munduan lanean, batez ere entretenimendu, *reality* eta *branded content* edukietan. Besteak beste, *Pekín Express* programako lantaldeko kide izan da zortzi ediziotan, grabazio eta *reality*etako talde-koordinatzaile gisa. *Expedición Imposible* programako grabazio-taldeko koordinatzailea, *Pesadilla en la cocina* eta *Viajeras con B* (B the travel brand) saioen zuzendari eta *Perdidos en la tribu*ren zuzendariordea izan da, *Top Chef* programako kanpoaldeen eta platoen koordinatzaileaz gain. Azken proiektuetako zenbaitzuk: *El País*erako eta Turismo de Asturias erakunderako *branded content*aren eta *National Geographic*erako *Espiando la II Guerra Mundial*en zuzendaritza.

Cristina Jiménez (Cuenca, España) ha desempeñado durante más de veinte años su labor profesional en el mundo audiovisual, especialmente en contenidos de entretenimiento, *reality* y *branded content*. Entre otros programas ha formado parte del equipo de *Pekín Express* durante ocho ediciones como coordinadora de equipo de grabación y *reality*. Ha sido también coordinadora de equipo de grabación en *Expedición Imposible*, directora de *Pesadilla en la cocina* y *Viajeras con B* de B the travel brand, subdirectora de *Perdidos en la tribu* y coordinadora de exteriores y plató de *Top Chef*. Entre sus últimos proyectos se encuentran la dirección del *branded content* para *El País* y Turismo de Asturias y la dirección de *Espiando la II Guerra Mundial* para *National Geographic*.

Cristina Jiménez (Cuenca, Spain) has performed her professional work for more than twenty years in the audiovisual world, especially in entertainment, reality and branded content. Among other programmes, she was a member of the *Pekín Express* team for eight editions as coordinator of the recording and reality team. She has also worked as coordinator of the recording team on *Expedición Imposible*, director of *Pesadilla en la cocina* and *Viajeras con B* by B the travel brand, deputy director of *Perdidos en la tribu* and location and set coordinator on *Top Chef*. Her latest projects include the direction of branded content for *El País* and the Asturian Tourist Board and the direction of *Espiando la II Guerra Mundial* for *National Geographic*.

Sinopsia / Sinopsis / Synopsis



Probaz, enigmaz eta ibilbidez josítako aurkikuntza-bidaia bat lurralde zoragarrietan zehar, lehiakide eta ikus-entzuleei Kanarien kondaira erakusteko. Indar, asmamen eta trebetasun handiko proba ikusgarriak uharteak sei ataletan zeharkatzen dituen lasterketa batean. Zortzi nazionalitatetako zortzi lehiakide Europako esploratzailerik onena izateko lehian. Proba bakoitza giltza bat da hurrengorako, abantaila edo sariak ematen ditu, hala nola koordenatu bidezko pista bat eta kondairaren zati bat, azken helburua lortzeko: San Borondón. Parte-hartzaileek jakingo dute Kanaria uharteak ez direla zortzi... bederatzi baizik. Graciosa, Lanzarote, Fuerteventura, Kanaria Handia, Tenerife, La Palma, Hierro eta Gomerak beren kondaira propioa ezkutatzen dute. Errealitatearen eta folklorearen, historiaren eta fikzioaren artean bederatzigarren uharte bat dagoela esaten da: San Borondón, Isla Ballena izenez ezaguna, kartografo eta nabigatzaileen ametsa mendeetan zehar eta parte-hartzaileen jomuga.

Un viaje de descubrimiento plagado de pruebas, enigmas y rutas por territorios maravillosos que mostrarán a concursantes y espectadores la leyenda de Canarias. Impresionantes pruebas de fuerza, ingenio y destreza en una carrera que recorre las islas en seis episodios. Ocho concursantes de ocho nacionalidades compiten por ser el mejor explorador de Europa. Cada prueba es una llave para la siguiente, ofreciendo una ventaja o recompensa, y la posibilidad de conseguir una pista en forma de coordenada y parte de la leyenda para alcanzar el objetivo final: San Borondón. Los participantes, averiguarán que, en realidad, las Islas Canarias no son ocho... sino nueve. La Graciosa, Lanzarote, Fuerteventura, Gran Canaria, Tenerife, La Palma, El Hierro y La Gomera esconden su propia leyenda. Entre la realidad y el folclore, la historia y la ficción, se dice que existe una novena isla: San Borondón, la conocida como Isla Ballena, el sueño de cartógrafos y navegantes durante siglos y el objetivo de los participantes.

A voyage of discovery riddled with trials, mysteries and routes through marvellous lands that will show competitors and spectators the legend of the Canaries. Impressive tests of strength, ingenuity and skill in a race around the islands over 6 episodes. 8 competitors of 8 nationalities compete to become Europe's best explorer. Each trial is the key to the next one, coming with an advantage or reward, and the possibility of obtaining a clue in the shape of a coordinate and part of the legend to achieve their final goal: San Borondón. The participants will see how, in fact, there are not 8 Canary Islands... but 9. La Graciosa, Lanzarote, Fuerteventura, Gran Canaria, Tenerife, La Palma, El Hierro and La Gomera all conceal their own legends. Somewhere between reality and folklore, history and fiction, a new island is said to exist: San Borondón, known as Whale Island, the dream of mapmakers and sailors for centuries and the goal of the participants.

Fitxa teknikoa / Ficha técnica / Full credits

Ekoizpena / Producción / Production
Ekoizpena / Producción / Production
Jorge Sánchez Gallo, Cristian Liarte, Poncho García-Valenzuela
Atlantia Media - Initiative - Mediabrands Content Studios - Turismo de Canarias Production - Rakuten TV (Spain)
+34 917 69 19 20
elisa.trigo@mbww.com

Salmentak / Ventas / Sales
Rakuten TV (Spain)
+34 931 22 08 81
daniel.gilgado@rakuten.com
www.rakuten.tv

Banaketa / Distribución / Distribution
Rakuten TV (Spain)
+34 931 22 08 81
daniel.gilgado@rakuten.com
www.rakuten.tv

ZUZENDARITZA / DIRECCIÓN / DIRECTION
CRISTINA JIMÉNEZ

Gidoia / Guion / Screenplay
Juan Luis Marín Gutiérrez

Argazkia / Fotografía / Photography
Sergio Alfonso Ortiz

Formatua / Formato / Format
DCP FOLLOWING DCI

Iraupena / Duración / Running time
105 min.

SSIFF

Donostia Zinemaldia
Festival de San Sebastián
International Film Festival

SSIFF Donostia Zinemaldia
Festival de San Sebastián
International Film Festival

www.sansebastianfestival.com

Zinemaldia Movistar Plus+ Areto Birtuala

Sala Virtual Zinemaldia Movistar Plus+

Zinemaldia Movistar Plus+ Virtual Cinema

SSIFF 70

2022
Iraila
Septiembre
16/24

SSIFF
Donostia Zinemaldia
Festival de San Sebastián
International Film Festival

Zinemaldia Movistar Plus+ Areto Birtuala

Bigarren urtez jarraian, Donostia Zinemaldiak areto birtual bat prestatu du Movistar Plus+ plataforman 70. edizioan programatutako filmak ikusteko, besteak beste, Horizontes Latinos, Zabaltegi-Tabakalera eta Culinary Zinema sailetako filmak, hain justu. Movistar Plus+ plataforman abonatutako pertsonek pelikulen katalogo horretarako sarbidea izango dute 5,99 euroren truke, urriaren 3ra arte.

Filmen zerrenda eguneratuz joango da Zinemaldia hasi arte.

Sala Virtual Zinemaldia Movistar Plus+

Por segundo año consecutivo, el Festival de San Sebastián habilita una sala virtual en Movistar Plus+ para visionar películas de la programación de la 70 edición, de secciones como Horizontes Latinos, Zabaltegi-Tabakalera y Culinary Zinema. Las personas abonadas a Movistar Plus+ podrán acceder a este catálogo de películas por 5,99 euros el visionado de cada una, hasta el 3 de octubre.

La lista de películas se irá actualizando hasta el inicio del Festival.

Zinemaldia Movistar Plus+ Virtual Cinema

For the second year running, the San Sebastian Festival enables a virtual cinema in Movistar Plus+ in which to watch films programmed at the 70th edition in sections such as Horizontes Latinos, Zabaltegi-Tabakalera and Culinary Zinema. Movistar Plus+ subscribers can access this catalogue of films at a price of 5.99 euros per viewing, until October 3.

The list of films will be updated until the start of the Festival.

Horizontes Latinos

Vicenta B.
Carlos Lechuga (Kuba - Frantzia - AEB - Kolonbia - Norvegia / Cuba - Francia - Estados Unidos - Colombia - Noruega / Cuba - France - USA - Colombia - Norway)

Un varón
Fabián Hernández (Kolonbia - Frantzia - Herbehereak - Alemania / Colombia - Francia - Países Bajos - Alemania / Colombia - France - Netherlands - Germany)

Zabaltegi-Tabakalera

A Human Position
Anders Emblem (Norvegia / Noruega / Norway)

Mutzenbacher
Ruth Beckermann (Austria / Austria / Austria)

Unrueh / Unrest
Cyril Schäublin (Suitza / Suiza / Switzerland)

Manto de gemas / Robe of Gems
Natalia López (Mexiko - Argentina / México - Argentina / Mexico - Argentina)

Amigas en un camino de campo / Friends on a Country Road
Santiago Loza (Argentina /Argentina / Argentina)

Culinary Zinema

Virgilio
Alfred Oliveri (Argentina - Uruguai / Argentina - Uruguay / Argentina - Uruguay)

La Huella, historia de un parador de playa / La Huella. The Story of a Beach Bar / Resto
Alessio Rigo de Righi (Argentina / Argentina / Argentina)

Mibu. La luna en un plato
Roger Zanuy (Espainia / España / Spain)



SSIFF Donostia Zinemaldia
Festival de San Sebastián
International Film Festival

www.sansebastianfestival.com

Donostia Sariak

Premios Donostia

Donostia Awards

SSIFF 70

2022
Iraila
Septiembre
16/24

Donostia Sariak
Premios Donostia
Donostia Awards

Juliette Binoche



© Brigitte Lacombe

Lehen urratsak antzerkian egin eta aktore gisa Frantziako Arte Dramatikoko Kontserbatorio Nazionalean trebatu ondoren, Juliette Binochek (Paris, 1964) zineman debuta egin zuen *Liberty Belle* (Pascal Kané, 1983) filmarekin. Ondoren, zenbait rol egin zituen besteak beste Jean-Luc Godard (*Je vous salue, Marie*, 1985), Jacques Doillon (*La vie de famille*, Sail Ofiziala, 1985) eta André Techiné (*Rendez-vous*, 1985) zinemagileen filmetan. Azken horrekin, bada, berriz aritu zen urte batzuk geroago *Alice et Martin* (1998) filmean. *Mauvais sang* (1986) ikonikoan, lehen aldiz aritu zen lankidetzan Leos Caraxekin. Haren agindupean aritu zen, halaber, *Les amants du Pont-Neuf* (1991) filmean.

Bere karreraren hasieratik, frantsesez filmatutako tituluak eta ingelesez egindako beste asko tartekatu ditu; tartean, hauek: *The Unbearable Lightness of Being* (Philip Kaufman, 1988), *Wuthering Heights* (Peter Kosminsky, 1992) eta *Damage* (Louis Malle, 1992). Horietan, hurrenez hurren, Daniel Day-Lewisekin, Ralph Fiennesekin eta Jeremy Ironsekin batera aritu zen. Hauekin batera ere aritu da lanean bere karreran: Mathieu Amalric, Daniel Auteuil, Judi Dench, Steve Carell, Catherine Deneuve, Johnny Depp, Ethan Hawke, Mathieu Kassovitz, Samuel L. Jackson, Denis Lavant, Olivier Martinez, Clive Owen eta Robert Pattinson.

Binochek doluz dagoen emakume baten rola jokatu zuen Krzysztof Kieślowskiren *Trois couleurs: Bleu* (Zabaltegi, 1994) trilogia ezaguna inauguratu zuen filmean. Lan horrengatik, aktore onenaren saria eskuratu zuen Veneziako zinema-jaialdian, baita César sari bat jaso ere –beste bederatzitan ere sari horietarako hautagai izan da, gainera–. George Sand nobelagilea ere izan zen *Les enfants du siècle* (Diane Kurys, 1999) filmean. Baina, nazioarteko aitortza *The English Patient* (1996) filmean jokatu zuen erizainaren rol ahaztezinari esker etorri zitzaion. Antzeztaldeko emakumezko aktore onenaren Oscar saria eta Berlingo zinema-jaialdiko aktore onenaren saria irabazi zituen, gainera.

Europako zinemagileen esanetara lan egin du; besteak beste, hauekin: Jean-Paul Rappeneau, Donostia Zinemaldiaren Sail Ofiziala lehiaketaz kanpo itxi zuena *Le hussard sur le toit* (1995) filmarekin; Chantal Akerman (*Un divan à New York*, 1996), Patrice Leconte (*La veuve de Saint-Pierre*, 2000), Lasse Hallström (*Chocolat*, 2000), John Boorman (*Country of My Skull*, 2004) eta Michael Haneke. Azken horrekin, funtsezko bi lan filmatu ditu: *Code inconnu: Récit incomplet de divers voyages* (2000) eta *Caché* (2005). 2002an, *Décalage horaire* (Danièle Thompson) filmaren protagonista izan zen, eta, harekin, Donostian izan zen lehen aldiz, Sail Ofiziala lehiaketaz kanpo ixteko.

Bere filmografiako beste titulu nabarmen batzuk hauek dira: *Mary* (Abel Ferrara, Perlak, 2005), *Le voyage du ballon rouge* (Hou Hsiao-Hsien, 2007), *Disengagement* (Amos Gitai, 2007) eta *Shirin* (Abbas Kiarostami, 2008). Azken zuzendari horrekin berriro egin zuen lan *Copie conforme* (2010) filmean. Toskanan girotutako amodio-istorio horrekin emakumezko aktore onenaren Saria irabazi zuen Canneseko zinema-jaialdian.

Juliette Binochek akzioko superprodukzio handietako rolak –*Godzilla* (Gareth Edwards, 2014) edo *Ghost in the Shell* (Rupert Sanders, 2017)– eta David Cronenbergekin (*Cosmópolis*, 2012), Isabel Coixetekin (*Nadie quiere la noche*, 2015) eta Bruno Dumontekin (*Ma Loute*, 2016 eta *Camille Claudel 1915*, 2013) egindako lanak tartekatu ditu. *Camille Claudel 1915* filmean, bada, Camille Claudel eskultore ezagunaren rola jokatu zuen. Maiz aritu da, halaber, Olivier Assayas zinemagilearekin. Haren zuzendaritzapean lan egin du, bada, *L'heure d'été* (*Udako orduak*, Perlak, 2008), *Clouds of Sils Maria* (2014) eta *Doubles vies* (2018) filmetan.

2018an, aktorea berriz itzuli zen Donostiara Sail Ofizialean lehiatu ziren bi film aurkeztera: *Vision*, Naomi Kawaseren ikuspegi mistiko bat, eta *High Life*, Claire Denisekin egin zuen beste kolaborazio bat. Zientzia-fikzioko generokoa da, eta Fipresci saria lortu zuen. Zuzendari horrekin batera –harekin filmatu zuen jada *Un beau soleil intérieur* (2017)–, azken Berlinalean lehiatu den film batean lan egin berri du: *Avec amour et acharnement* (2022). Maitasun-triangelu baten istorio bat da, eta Binoche da protagonistetako bat; besteak Vincent Lindon eta Grégoire Colin dira. Donostia saria emanaldia izango da, hain zuzen ere, eta ikusgai egongo da Kursaal auditoriumean, aktoreak saria jasoko duen galaren ondoren.

Bere azken lanen artean daude, orobat, Hirokazu Koreedaren *La vérité* (Perlak, 2019) –harekin batera izan zen aktorea Donostian hirugarren aldiz– eta *Ouistreham* (Emmanuel Carrère, 2021). Azken horrek, iaz, Perlak sailean parte hartu zuen, eta Europako Film Onenaren Donostia Hiria Publikoaren Saria jaso zuen.

Donostia Sariak
Premios Donostia
Donostia Awards

Tras dar sus primeros pasos en el teatro y formarse como actriz en el Conservatorio Nacional de Arte Dramático, Juliette Binoche (París, 1964) debutó en el cine con *Liberty Belle* (Pascal Kané, 1983), a la que siguieron algunos papeles en obras de cineastas como Jean-Luc Godard (*Je vous salue, Marie / Yo te saludo, María*, 1985), Jacques Doillon (*La vie de famille*, Sección Oficial, 1985) o André Techiné (*Rendez-vous / La cita*, 1985), con quien volvió a coincidir años más tarde en *Alice et Martin* (*Alice y Martin*, 1998). La icónica *Mauvais sang* (*Mala sangre*, 1986) supuso su primera colaboración con Leos Carax, a cuyas órdenes también filmó *Les amants du Pont-Neuf* (*Los amantes del Pont-Neuf*, 1991).

Desde los inicios de su carrera ha alternado títulos rodados en francés con otros muchos realizados en inglés como las adaptaciones literarias de *The Unbearable Lightness of Being* (*La insoportable levedad del ser*, Philip Kaufman, 1988), *Wuthering Heights* (*Cumbres borrascosas*, Peter Kosminsky, 1992) o *Damage* (*Herida*, Louis Malle, 1992), en las que actuó con Daniel Day-Lewis, Ralph Fiennes y Jeremy Irons, respectivamente. Otras figuras con las que ha compartido reparto durante su carrera son Mathieu Amalric, Daniel Auteuil, Judi Dench, Steve Carell, Catherine Deneuve, Johnny Depp, Ethan Hawke, Mathieu Kassovitz, Samuel L. Jackson, Denis Lavant, Olivier Martinez, Clive Owen y Robert Pattinson.

Binoche encarnó a una mujer en duelo en la película que inauguró la célebre trilogía de Krzysztof Kieslowski, *Trois couleurs: Bleu* (*Tres colores: Azul*, Zabaltegi, 1994), por cuyo trabajo recibió el premio a la mejor actriz en el Festival de Venecia y un premio César, distinción a la que ha optado en nueve ocasiones más. También fue la novelista George Sand en *Les enfants du siècle* (*Confesiones íntimas de una mujer*, Diane Kurys, 1999). Pero el reconocimiento internacional masivo le llegó gracias a su inolvidable personaje de enfermera en *The English Patient (El paciente inglés*, 1996*)*, que le proporcionó el Oscar a la mejor actriz de reparto y el premio a la mejor actriz en el Festival de Berlín.

Ha trabajado al mando de cineastas europeos como Jean-Paul Rappeneau, que clausuró fuera de concurso la Sección Oficial del Festival de San Sebastián con *Le hussard sur le toit* (*El húsar en el tejado*, 1995); Chantal Akerman (*Un divan à New York / Romance en Nueva York*, 1996), Patrice Leconte (*La veuve de Saint-Pierre / La viuda de Saint-Pierre*, 2000), Lasse Hallström (*Chocolat*, 2000), John Boorman (*Country of My Skull / Un país en África*, 2004) y Michael Haneke, con quien ha rodado dos obras fundamentales: *Code inconnu: Récit incomplet de divers voyages* (*Código desconocido*, 2000) y *Caché* (*Escondido*, 2005). En 2002, además, protagonizó *Décalage horaire* (*Jet Lag*, Danièle Thompson), filme con el que visitó San Sebastián por primera vez para clausurar la Sección Oficial fuera de competición.

Otros títulos destacados de su filmografía son *Mary* (Abel Ferrara, Perlak, 2005), *Le voyage du ballon rouge* (*El vuelo del globo rojo*, Hou Hsiao-Hsien, 2007), *Disengagement* (Amos Gitai, 2007) y *Shirin* (Abbas Kiarostami, 2008), con cuyo director volvió a trabajar en *Copie conforme* (*Copia certificada*, 2010), una historia de amor ambientada en la Toscana que le valió el premio a la mejor actriz en el Festival de Cannes.

Juliette Binoche ha compaginado papeles en grandes superproducciones de acción como *Godzilla* (Gareth Edwards, 2014) o *Ghost in the Shell* (*Ghost in the Shell: el alma de la máquina*, Rupert Sanders, 2017) con trabajos para autores de la talla de David Cronenberg (*Cosmópolis*, 2012), Isabel Coixet (*Nadie quiere la noche*, 2015) o Bruno Dumont, con quien ha actuado en *Ma Loute* (*La alta sociedad*, 2016) y *Camille Claudel 1915* (2013), en la que encarnó a la reconocida escultora Camille Claudel. También son frecuentes sus incursiones con el cineasta Olivier Assayas, que la ha dirigido en *L'heure d'été* (*Las horas del verano*, Perlak, 2008), *Clouds of Sils Maria* (*Viaje a Sils Maria*, 2014) y *Doubles vies* (*Dobles vidas*, 2018).

En 2018 la actriz regresó a San Sebastián para presentar dos películas que compitieron en la Sección Oficial: *Vision* (*Viaje a Nara*), un relato místico de Naomi Kawase, y *High Life*, una nueva colaboración con Claire Denis enmarcada en el género de la ciencia ficción que obtuvo el Premio Fipresci. Junto a esta directora, con quien ya había rodado *Un beau soleil intérieur* (*Un sol interior*, 2017), ha trabajado recientemente en una película que compitió en la última Berlinale, *Avec amour et acharnement* (*Fuego*, 2022), la historia de un triángulo amoroso que Binoche forma junto a Vincent Lindon y Grégoire Colin. Será la Proyección Premio Donostia que acogerá el Auditorio Kursaal tras la gala en la que la actriz recibirá el galardón.

Entre sus últimos trabajos también figuran *La vérité* (*La verdad*, Perlak, 2019), de Hirokazu Koreeda, con quien la actriz viajó a San Sebastián por tercera vez, y *Ouistreham* (*En un muelle de Normandía*, Emmanuel Carrère, 2021), que el año pasado participó en Perlak y se alzó con el Premio del Público Ciudad de Donostia / San Sebastián a la mejor película europea.

Juliette Binoche

Having taken her first steps in the theatre and trained as an artist at the National Conservatory of Dramatic Art, Juliette Binoche (Paris, 1964) made her movie debut with *Liberty Belle* (Pascal Kané, 1983), followed by numerous roles in the works of filmmakers including Jean-Luc Godard (*Je vous salue, Marie / Hail Mary*, 1985), Jacques Doillon (*La vie de famille / Family Life*, Official Selection, 1985) and André Techiné (*Rendez-vous* 1985), with whom she once again coincided years later on *Alice et Martin* (1998). The iconic *Mauvais sang / The Night Is Young (*1986) was her first collaboration with Leos Carax, under whom she also worked in *Les amants du Pont-Neuf / The Lovers on the Bridge* (1991).

From the very beginning of her career she has alternated titles made in French with many others in English, including the literary adaptations of *The Unbearable Lightness of Being* (Philip Kaufman, 1988), *Wuthering Heights* (Peter Kosminsky, 1992) and *Damage* (Louis Malle, 1992), in which she starred alongside Daniel Day-Lewis, Ralph Fiennes and Jeremy Irons, respectively. She has featured in casts with Mathieu Amalric, Daniel Auteuil, Judi Dench, Steve Carell, Catherine Deneuve, Johnny Depp, Ethan Hawke, Mathieu Kassovitz, Samuel L. Jackson, Denis Lavant, Olivier Martinez, Clive Owen and Robert Pattinson, among others.

Binoche played a grieving woman in the film opening Krzysztof Kieslowski's famous trilogy, *Trois couleurs: Bleu* (*Three Colours: Blue*, Zabaltegi, 1994), receiving her first César Award, an accolade for which she has racked up another nine nominations, and the acting award at the Venice Festival. She was also the novelist George Sand in *Les enfants du siècle* (*The Children of the Century*, Diane Kurys, 1999). However, widespread international recognition was to arrive with her unforgettable role as the nurse in *The English Patient (*1996*)*, bagging her the Oscar for Best Supporting Actress and the acting award at the Berlin Festival.

She has worked under the orders of European filmmakers including Jean-Paul Rappeneau, who closed San Sebastian Festival's Official Selection competition with *Le hussard sur le toit* (*The Horseman on the Roof*, 1995); Chantal Akerman (*Un divan à New York / A Couch in New York*, 1996), Patrice Leconte (*La veuve de Saint-Pierre / The Widow of Saint-Pierre*, 2000), Lasse Hallström (*Chocolat*, 2000), John Boorman (*Country of My Skull*,2004) and Michael Haneke, with whom she has filmed two essential movies: *Code inconnu: Récit incomplet de divers voyages* (*Code Unknown*, 2000) and *Caché* (*Hidden*, 2005). In 2002 she also played the lead part in *Décalage horaire* (*Jet Lag*, Danièle Thompson), the film bringing her to San Sebastian for the first time to close the Official Selection out of competition.

Also outstanding in her filmography are *Mary* (Abel Ferrara, Perlak, 2005), *Le voyage du ballon rouge* (*The Flight of the Red Balloon*, Hou Hsiao-Hsien, 2007), *Disengagement* (Amos Gitai, 2007) and *Shirin* (Abbas Kiarostami, 2008), whose director she joined yet again to make *Copie conforme* (*Certified Copy*, 2010), a love story set in Tuscany for which she won the Best Actress Award at the Festival de Cannes.


Juliette Binoche has combined roles in action blockbusters like *Godzilla* (Gareth Edwards, 2014) and *Ghost in the Shell* (Rupert Sanders, 2017) with others for big-name independent helmers such as David Cronenberg (*Cosmopolis*, 2012), Isabel Coixet (*Nadie quiere la noche / Nobody Wants the Night*, 2015) and Bruno Dumont, with whom she starred in *Ma Loute* (*Slack Bay*, 2016) and *Camille Claudel 1915* (2013), where she brought life to the famous sculptor of the same name. She has also frequently worked with the moviemaker Olivier Assayas, who directed her in *L'heure d'été* (*Summer Hours*, Perlak, 2008), *Clouds of Sils Maria* (2014) and *Doubles vies* (*Non-Fiction*, 2018).

In 2018 the actor returned to San Sebastian to present two films competing in the Official Selection: *Vision*, a mystic tale by Naomi Kawase, and *High Life*, a new collaboration with Claire Denis on this sci-fi movie rewarded with the Fipresci Prize. Binoche has recently hooked up once again with the director alongside whom she had previously shot *Un beau soleil intérieur* (*Let the Sunshine In*, 2017) for *Avec amour et acharnement* (*Both Sides of the Blade*, 2022), the tale of a love triangle between Binoche, Vincent Lindon and Grégoire Colin. This film will be the Donostia Award Screening in the Kursaal Auditorium following the gala at which the actress will receive her award.

Her latest works also include *La vérité* (*The Truth*, Perlak, 2019), by Hirokazu Koreeda, with whom the actress travelled to San Sebastian for the third time, and *Ouistreham* (*Between Two Worlds*, Emmanuel Carrère, 2021), which participated in Perlak last year and carried off the City of Donostia / San Sebastian Audience Award for Best European Film.

Donostia Sariak
Premios Donostia
Donostia Awards

David Cronenberg



© Caitlin Cronenberg

Izugarrikeria biologikoaren, atmosfera aztoratzaileen eta unibertso pertsonal bezain transferiezinaren maisu, David Cronenbergek (Toronto, Kanada. 1943) hogei bat film luze zuzendu ditu, eta horien artean, nabarmentzekoak dira hainbat generotako –zientzia fikzioko, beldurrezko filmetako, drama psikologikoen generoko eta *thriller*etako– klasiko bihurtu diren obrak. Halaber, telebistarako lan ugari ere sortu ditu.

Piano-jotzaile baten eta idazle baten semea, David Cronenberg liburu eta komikiz inguratuta hazi zen, eta kultura eta zinemagatiko bere interesa oinarritu zuen horrek. Autodidakta, bere lehen lanak film laburrak –esaterako, *Transfer* (1966) eta *From the Drain* (1967)– izan ziren, eta horien ondoren, lehen film luzeak zuzentzen hasi zen, esperimentalak denak, hala nola *Stereo* (1969) eta *Crimes of the Future* (1970); azken honen izenburuak bere azken filmaren izenburuarekin bat egiten du. Lehen obra horietan jada ikusten ziren egilearen filmografia ezaugarrituko zuten nolakotasunak: gaixotasuna, indarkeria, sexua, gorputza, esperimentazio zientifikoa, etab.

Esperimentazio zientifikoaren gaiak, izan ere, oso presentzia handia izan zuen Cronenbergen obren lehen etapan; horren adibide dira *Shivers* (1975), *Rabid* (1977) eta *The Brood* (1979) filmak: parasito hiltzaileak, izurrite bortitzak, psikopatak tratatzeko huts egindako terapiak, etab. Enkargatutako filmak ere zuzendu zituen, hala nola *Fast Company* (1979) auto-lasterketei buruzko filma, baina bi obrak ezarri zuten funtsa geroago genero-zinema erradikalenaren barruan lortuko zuen osperako: batetik, *Scanners* (1981), botere mental hilgarriak dituzten pertsonen talde bati buruzkoa; eta bestetik, *Videodrome* (1983), *new flesh* (haragi berria) estetikaren gailurretako bat. *The Fly* (1986) lanean intsektu bihurtzen den zientzialari baten istorio itogarria kontatu ondoren, Jeremy Irons antzezlea izan zuen protagonista hurrengo bi filmetan: *Dead Ringers* (1988), non aktoreak bi rol egin zituen (bi anaia ginekologo biki oinazetsu); eta *M. Butterfly* (1993), operako diva misteriotsu baten eta 60ko hamarkadan Txinan bizi den diplomatiko frantses baten arteko erromantze anbiguoa kontatzen diguna.

Halaber, Cronenbergek zenbait idazleren eleberrien zinema-moldaketak ere egin izan ditu; hona hemen zenbait adibide: Stephen King –*The Dead Zone* (1983)–; William Burroughs –*Naked Lunch* (1991), agian bere kultuzko lanik handiena–; eta J. G. Ballard; izan ere, *Crash* (1996) pelikulan –Ballarden izen bereko eleberriaren moldaketan–, hainbat pertsonaiak auto-istripuak izatean sentitzen duten sexu-kitzikapena aztertzen zuen egileak, eta Cannesko zinema-jaialdian Epaimahaiaren Sari Berezia jaso zuen zinemagileak film horrengatik. *eXistenZ* (1999) filmarekin errealitate birtualean murgildu eta *Spider* (2002) lanean gaixotasun mentalaren infernuari begiratu ondoren, etapa berri bat inauguratu zuen zinemagile kanadarrak bere filmografian, non genero fantastikoak bere zinemaren osagai nagusi izateari utzi baitzion, eta orain, 20 urte geroago, *Crimes of the Future* (2022) estreinatu berri du; egilearen aspaldiko obsesioen berrikuspen edo laburpen hori, izan ere, Donostia Saria Emanaldietako bat izango da Donostia Zinemaldiaren 70. edizioan, eta Cannesen ere hartu zuen parte.

Zinemagile kanadarraren azken film hau Viggo Mortensen aktorea izango duen laugarren lana da. *A History of Violence* (2005) intrigazko iragan batek markatutako gizon bati buruzko *thriller*rean egin zuten lan elkarrekin lehenengoz bi artistek. Bigarren lankidetzan –*Eastern Promises* (2007) obran–, Londresko mafia errusiarraren infernuan murgildu zen zinemagilea, eta hirugarrenean –*A Dangerous Method* (2011)– filmean, berriz, Mortensenek Sigmund Freuden rola egin zuen. *Crimes of the Future* filmaren aurreko bi obrak hauek izan ziren: *Cosmopolis* (2012), Don DeLilloren eleberriaren egokitzapena; eta *Maps to the Stars* (2014), ospeari buruzko gogoeta garratz bat.

Arestian aipatutako bi lan horietan Robert Pattinsonek hartu zuen parte; izan ere, David Cronenbergen filmetan lan egin duten izarren zerrenda oso zabalean sartu zen azkenetakoa da Pattinson. Besteak beste, hauek dira nabarmentzekoak zerrenda horretan: Juliette Binoche –Donostia Sarietako beste bat aurtengo edizioan–, Gabriel Byrne, Willem Dafoe, Geena Davis, Michael Fassbender, Ralph Fiennes, Jeff Goldblum, Ed Harris, Holly Hunter, William Hurt, Keira Knightley, Jude Law, Jennifer Jason Leigh, Miranda Richardson, Martin Sheen, James Spader, Christopher Walken, Naomi Watts, Peter Weller eta James Woods.

David Cronenbergek beste zinemagile batzuen filmetan ere lan egin izan du aktore gisa, hala nola hauetan: *Nightbreed* (1990, Clive Barker), *To Die For* (1995, Gus Van Sant), *Extreme Measures* (1996, Michael Apted) eta *Falling* (2020, Viggo Mortensen, zeina bideo baten bitartez zoriondu baitzuen, 2020an Kursaalen, Donostia Saria jaso zuenean). Gainera, Kanadako Ordenarekin saritu dute, eta Frantziako Arte eta Letren Ordenako ofizial eta Ohorezko Legioko zaldun ere bada. 2014an bere lehen eleberria argitaratu zuen, *Consumed: A Novel* izenekoa.

Donostia Sariak
Premios Donostia
Donostia Awards

Maestro del horror biológico, de las atmósferas turbadoras y de un universo tan personal como intransferible, David Cronenberg (Toronto, Canadá. 1943) ha dirigido una veintena de largometrajes entre los que destacan obras convertidas en clásicos de géneros como la ciencia ficción, el terror, el drama psicológico o el *thriller*. También es autor de numerosos trabajos para televisión.

Hijo de una pianista y de un escritor, David Cronenberg creció entre libros y cómics que cimentaron su interés por la cultura y el cine. Autodidacta, sus primeros trabajos fueron cortos como *Transfer* (1966) y *From the Drain* (1967), a los que siguieron sus primeros largometrajes, de corte experimental, *Stereo* (1969) y *Crimes of the Future* (1970), cuyo título coincide con el de su película más reciente. En estas obras primerizas podían rastrearse ya los rasgos de una filmografía marcada por temas como la enfermedad, la violencia, el sexo, el cuerpo o la experimentación científica.

Esta última está muy presente en la primera etapa de su obra, por ejemplo, en *Shivers* (*Vinieron de dentro de…*, 1975), *Rabid* (*Rabia*, 1977) o *The Brood* (*Cromosoma 3*, 1979), en las que conviven parásitos asesinos, plagas violentas y terapias fallidas para tratar psicópatas. También firmó encargos como *Fast Company* (1979), una película sobre carreras de coches, aunque los títulos que forjaron su prestigio como autor dentro del cine de género más radical fueron *Scanners* (1981), sobre un grupo de personas con mortales poderes mentales, y *Videodrome* (1983), una de las cimas de la estética de la Nueva Carne. Tras narrar en *The Fly* (*La mosca*, 1986) la asfixiante historia de un científico que se transforma en insecto, contó con Jeremy Irons para protagonizar dos de sus siguientes películas: *Dead Ringers* (*Inseparables*, 1988), en la que el actor se desdobló para encarnar a unos atormentados ginecólogos gemelos, y *M. Butterfly* (1993), el ambiguo romance entre una misteriosa diva de la ópera y un diplomático francés en la China de los años 60.

Cronenberg ha llevado a la pantalla novelas de escritores tan icónicos como Stephen King —*The Dead Zone* (*La zona muerta*, 1983)—, William Burroughs —*Naked Lunch* (*El almuerzo desnudo*, 1991), quizá su mayor obra de culto— y J.G. Ballard, a quien adaptó en *Crash* (1996), que analizaba la excitación sexual de varios personajes al sufrir accidentes automovilísticos y que obtuvo el Premio Especial del Jurado en el Festival de Cannes. Tras adentrarse en la realidad virtual con *eXistenZ* (1999) y asomarse a los abismos de la enfermedad mental en *Spider* (2002), el cineasta canadiense inauguró una etapa en su filmografía en la que el fantástico dejó de ser el ingrediente principal de su cine, hasta que ahora, 20 años después, acaba de estrenar *Crimes of the Future* (2022), una revisión o compendio de sus antiguas obsesiones que será Proyección Premio Donostia en la 70ª edición del Festival de San Sebastián y que compitió en el Festival de Cannes.

Esta última película supone su cuarta colaboración con el actor Viggo Mortensen, con quien primero rodó *A History of Violence* (*Una historia de violencia*, 2005), un *thriller* sobre un hombre marcado por un intrigante pasado. Los otros filmes son *Eastern Promises* (*Promesas del Este*, 2007), una inmersión en el infierno de la mafia rusa de Londres, y *A Dangerous Method* (*Un método peligroso*, 2011), en la que Mortensen interpretaba a Sigmund Freud. Los dos últimos títulos anteriores a *Crimes of the Future* fueron *Cosmopolis* (2012), adaptación de la novela de Don DeLillo, y *Maps to the Stars* (2014), una ácida reflexión sobre la fama.

En ambos trabajos participó Robert Pattinson, uno de los últimos en sumarse a la amplia nómina de estrellas con las que David Cronenberg ha trabajado a lo largo de su dilatada carrera y en la que destacan, entre otras, Juliette Binoche –otro de los Premios Donostia de esta edición–, Gabriel Byrne, Willem Dafoe, Geena Davis, Michael Fassbender, Ralph Fiennes, Jeff Goldblum, Ed Harris, Holly Hunter, William Hurt, Keira Knightley, Jude Law, Jennifer Jason Leigh, Miranda Richardson, Martin Sheen, James Spader, Christopher Walken, Naomi Watts, Peter Weller y James Woods.

David Cronenberg también ha intervenido como actor en películas de otros cineastas como, por ejemplo, en *Nightbreed* (*Razas de noche*, 1990, Clive Barker), *To Die For* (*Todo por un sueño*, 1995, Gus Van Sant), *Extreme Measures* (*Al cruzar el límite*, 1996, Michael Apted) y *Falling* (2020), a cuyo director, Viggo Mortensen, felicitó a través de un vídeo cuando recibió en el Kursaal el Premio Donostia en 2020. Además, ha sido distinguido con la Orden de Canadá y es Oficial de la Orden de las Artes y las Letras y Caballero de la Legión de Honor francesas. En 2014 publicó su primera novela, *Consumed: A Novel* (*Consumidos*).

David Cronenberg

Master of biological horror, of disturbing atmospheres and of a universe as personal as it is non-transferable, David Cronenberg (Toronto, Canada. 1943) has directed some twenty features including works considered today to be the classics of genres like sci-fi, horror, psychological drama and thriller. He has also written several works for television.

The son of a pianist and a writer, David Cronenberg grew up surrounded by books and comics, thus stoking his interest in culture and cinema. Self-taught, his earliest shorts included *Transfer* (1966) and *From the Drain* (1967), followed by his first experimental features, *Stereo* (1969) and *Crimes of the Future* (1970), a film sharing the same name as his latest movie. Those early works already hinted at the traits of a filmography marked by subjects such as disease, violence, sex, the body and scientific experiments.

This latter is ubiquitous in his earlier works, such as *Shivers* (1975), *Rabid* (1977) and *The Brood* (1979), where killer parasites, violent plagues and failed cures for psychopaths rub shoulders. While he also made movies on commission, such as the car-racing *Fast Company* (1979), the titles that finally earned him solid prestige as an author of the most radical horror genre were *Scanners* (1981), about a group of people with extraordinary telepathic powers, and *Videodrome* (1983), one of the pinnacles of New Flesh aesthetics. Having narrated the asphyxiating tale of a scientist who morphs into an insect in *The Fly* (1986), Cronenberg went on to work with Jeremy Irons as the star of his ensuing two films: *Dead Ringers* (1988), where the actor doubled up to play a couple of tormented twin gynaecologists, and *M. Butterfly* (1993), the ambiguous romance between a mysterious opera performer and a French diplomat in the China of the 60s.

